

Parrafoak ordenatu -

TXANOGORRITXO

—AMONA, ZELAKO HORTZ HANDIAK DITUZUN!
—OIHU EGIN ZUEN TXANOGORRITXOK.
—ZU HOBETO JATEKO DIRA! —DEIADAR EGIN ZUEN OTSOAK.

OTSOAK SALTO EGIN ETA TXANOGORRITXO IRENTSI ZUEN, BAINA EHIZTARI BATZUEK OTSOA HIL, ETA HAREN SABELETIK AMONA ETA TXANOGORRITXO OSORIK ETA BIZIRIK ATERA ZITUZTEN.

—AMONAREN ETXERA NOA —ERANTZUN ZUEN.
—ONGI DA —ESAN ZION OTSOAK—. JARRAITU BIDEARI, NI BESTE BIDE HONETATIK NOA ETA.

OTSOA LEHENAGO HELDU ZEN AMONAREN ETXERA. AMONAK TXANOGORRITXO ZELAKOAN IREKI ZUEN ATEA, ETA ORDUAN OTSOAK AMONA JAN ZUEN.

OTSOAK KAMISOI ETA TXANO BAT JANTZI ETA OHEAN SARTU ZEN. TXANOGORRITXOK, AMONAREN ETXERA HELDU BEZAIN LASTER, HARENGANA JO ZUEN.

GOIZ BATEAN, OTSO BASATIA INOIZ BAINO UMORE TXARRAGOAZ ESNATU ZEN. GAIZKI EGIN ZUEN LO.
—OTURUNTZA EDER BATEK EGUNA ALAITUKO DIT!
—ESAN ZUEN.

TXANOGORRITXOK, AMONAREN ETXERA BISITAN JOAN AURRETIK, AMARI AGUR ESAN ZION.
—KONTUZ OTSOAREKIN —OHARTU ZUEN AMAK.

NESKATILA LOREAK BILTZEN ZEBILEN OTSOA AGERTU ZENEAN:
—NORA ZOAZ, TXANOGORRITXO?

1.parrafoa

2.parrafoa

3 .parrafoa